

aLEKA

TOLOSAKO UDAL ALDIZKARIA | 2022ko maiatza

04-05

JAIEN BERDINTASUN BEHATOKIA

Plan para unas fiestas más igualitarias

06-07

ALDAKETA KLIMATIKOA

Plan Contra el Cambio Climático

10-13

AZKEN BERRIAK

Actualidad tolosarra

15

AGENDA

¿Qué quieres hacer?



TOLOSA ERALDATZEN

*Tolosa jasangarriago, berdinzaleago
eta euskaldunago baten alde lanean*

TOLOSA JASANGARRIA, BERDINZALEA ETA EUSKALDUNA

T

olosako Udalak Tolosa indarberritzera, eraldatzera eta hobetzera zuzendutako hainbat proiektu eta egitasmo ditu esku artean. Esaterako, jasangarrtasuna sustatzeko politika publiko berdeak sustatzen dihardu Udalak eta Aldaketa Klimatikoari aurre egiteko Tokiko Plana garatu berri du herritarrekin elkarlanean. Planak hiru atal ditu: testuinguru orokorra, aldaketa klimatikoak Tolosan izango dituen eragin nagusien azterketa eta eraldaketarako proposatzen diren ekintzak.

Horrez gain, berdintasunaren alorrean ere urrats garrantzitsuak ematen jarraitzen du Tolosako Udalak. Jai berdinzaleagoen alde, Tolosako Jaien Berdintasun Behatokiaren 2021-2024 Ekintza Plana garatu du sail ezberdinekin eta eragileekin elkarlanean, jaietan eta gizarteko gainerako alorretan ere berdintasuna eta parekidetasuna sustatzen jarraitzeko helburuarekin.

Euskararen alorrean ere egitasmo ugari bultzatzen ari da Udala. Euskara Sustatzeko 2022-2024 Ekintza Plana garatu da Euskararen Aholku Kontseiluan, eragileekin lankidetzan, euskararen erabilera sustatzen eta indartzen jarraitzeko.

El Ayuntamiento de Tolosa está trabajando en varios proyectos para continuar mejorando y transformando Tolosa. Entre otros, para continuar impulsando políticas públicas verdes y fomentar la sostenibilidad en el municipio, ha desarrollado en colaboración con la ciudadanía el Plan Local contra el Cambio Climático. En materia de igualdad, para seguir fomentando la igualdad en diferentes ámbitos y promover unas fiestas más igualitarias se ha desarrollado el Plan de Acción 2021-2024 del Observatorio de Igualdad de las Fiestas de Tolosa. Además, el Ayuntamiento ha presentado el Plan de Acción 2022-2024 para la Promoción del Euskera a fin de seguir impulsando su uso en Tolosa.

TOLOSAN EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLAN BERRIA

Nuevo Plan de Acción para la Promoción del Euskera en Tolosa




Euskararen Aholku Kontseilua sortu zuen Udalak, beste eragile batzuekin batera, 2021ean Tolosan hizkuntza politika partekatua sustatzeko. Geroztik, Euskara Sustatzeko 2022-2024 Ekintza Plana garatu du Kontseiluak, Udalaren eta herriko zenbait eragileren artean. Udalerriko premietara dimentsionatutako lanabesa izango da, Tolosan administrazioan, arlo sozioekonomikoan, aisian eta kirolean euskararen erabilera sustatzen eta indartzen jarraitzeko.

2022-2024eko plana garatzeko, aurreko Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren ebaluazioa egin da; baita Tolosako egoera soziolinguistikoaren analisia eta hurrengo urteetarako proposamenen eta beharrezan inguruko lanketa ere.

Euskararen erabilerak gora egin du Tolosan azken lau urteetan

Aumenta el uso del euskera en Tolosa en los últimos cuatro años

El Ayuntamiento creó en 2021 el Consejo Asesor del Euskera para promover una política lingüística compartida en Tolosa. Desde entonces, el Consejo ha desarrollado de forma colaborativa el Plan de Acción 2022-2024 para la Promoción del Euskera, una herramienta dimensionada a las necesidades del municipio para seguir fomentando y potenciando el uso del euskera en el ámbito administrativo, socioeconómico, de ocio y deportivo de Tolosa.



Eusko Jaurlaritzak goraipatu egin du Tolosan Euskara Sustatzeko Ekintza Plana garatzeko jarraitu den lan prozesua eta gainerako herrirentzako eredugarria dela adierazi du.

Planak 2022rako aurreikusten dituen ekintzak:

- Estrategia:
 - Euskararen Aholku Kontseiluko kideentzat prestakuntza saioak antolatu.
 - Tokiko euskalgintzarekin hitzarmenak sinatu.
- Transmisioa:
 - Guraso berrien sentsibilizazioa.
 - Gurasoen hizkuntza ohiturak landu, zabaldu.
- Irakaskuntza:
 - Errefortzua: 16 urtetik beherako beharrezan erantzuteko.
- Euskalduntzea/alfabetatzea:
 - Harrera gida
- Arlo sozioekonomikoa:
 - Kontsumitzaileak sentiberatzeko kanpaina egin
 - Karteldegia berritu eta erakargarriago egin
 - Enpresa arloan eragiteko estrategia orokorra garatu
- Aisia eta kirola:
 - Berritzeguneak Tolosaldeko ikastetxeen laguntzarekin garatu
- Kulturgintza:
 - Euskarazko ekimenen bilgunea sortzeko beharrezan aztertu

FESTA BERDINZALEAGOEN ALDEKO JAIEN BERDINTASUN BEHATOKIAREN PLANA

**Nuevo Plan del
Observatorio de Igualdad
para promover unas
fiestas más igualitarias**



Tolosako Udalak urteak daramatza berdintasunaren alde lanean. Tolosaldeko Emakumeen Etxea errealitate bihurtuko da laster eta Berdintasun Kontseilua sortu zen iaz, emakumeen parte-hartze aktiboa bermatzeko. Horrez gain, Tolosako jaiak berdinzaleak izan daitezten urratsak emateko bideak ere ireki ditu Udalak.

Ibilbide horretan, gizarte-eragileek hainbat ekimen egin dituzte jaietan berdintasuna indartzeko, beren kabuz eta baita Udalarekin elkarlanean ere. Ondorioz, ohikoa da Tolosako aurrerapenak erreferentziatzen hartzea beste udalerrri batzuetan, jai-eremuetan berdintasun politikak indartzeko.



2017an jarri zen martxan Tolosako Jaien Berdintasun Behatokia eta azken urte hauetan hainbat pauso eta ekintza garrantzitsu egin ditu. Horiei jarraipena emateko asmoz, Jaien Berdintasun Behatokiaren Plana sortu du orain Tolosako Udalak, udalerrian berdintasuna sustatzen jarraitzeko tresna gehigarri gisa.

Plana 2017tik 2019ra San Joan jaien inguruan egin diren azterketetan oinarritu bada ere, udalerriko jai guztiak barne hartu nahi ditu, eta 2024ra bitarte martxan jartzeko plana da. Jaiak eta gizartea urtez urte aldatzen diren heinean, egokitzapenak izan ditzake.

En 2017 se puso en marcha el Observatorio de Igualdad de las Fiestas de Tolosa y a lo largo de estos últimos años ha llevado a cabo varias acciones importantes para impulsar la igualdad en Tolosa. Se ha creado ahora el Plan de Acción del Observatorio, como herramienta adicional, para dar continuidad a las acciones ya iniciadas y establecer otras nuevas, con el fin de seguir promoviendo la igualdad en los ámbitos festivos del municipio. La colaboración con la ciudadanía y la transversalidad entre departamentos municipales es clave en el nuevo Plan de Acción.

**97 ekintza zehaztu
dira zeharkakotasunez
jai berdinzaleagoak
sustatzeko**

Lau ardatz nagusi berdintasunerantz / Cuatro ejes fundamentales para la igualdad:



- Desarrollar de forma sistematizada las funciones y la organización del Observatorio.
- Dar pasos hacia una organización más igualitaria de las fiestas de Tolosa
- Incorporar la perspectiva crítica de género en las actividades de las fiestas de Tolosa
- Conseguir unas fiestas libres de violencia machista para el disfrute de toda la ciudadanía

2022-2024 Planean jasotako ekintzen artean, aurtengoak:



- Berdintasun Kontseilutik Behatokiaren jarraipena egin.
- Indarkeria jaietara buruzko bileretan landu beharreko puntu iraunkorra bihurtu.
- Feminismoan formakuntza eskaini jaietan kontratatzen den erakunde orori.
- Kirol arloan diziplina ezberdinetako emakume kirolariak ikusarazteko ekintzak antolatu jaietan (gizon eta emakumeen txapelketak parekatu, tradizionalki gizonezkoak nagusitu izan diren diziplinetan emakumeen parte hartzea sustatu eta bultzatzeko ekintzak egin...).
- Aisialdi, natura eta kirol jarduerak antolatzen dituzten elkarteekin jarduera berritzaileak sortzeko estrategiak pentsatzen hasi.
- Musika-programazioan berdintasun-irizpideak aintzat hartzen jarraitu.
- Jaietako omenaldi ezberdinetan emakumeak omentzen jarraitu eta joera hori bultzatu, arrakala historikoa orekatzeko.




Kontsultatu Jaien Berdintasun Behatokiaren Plan osoa hemen

Consulta aquí el Plan del Observatorio para la Igualdad de las Fiestas de Tolosa



ALDAKETA KLIMATIKOARI AURRE EGITEKO TOKIKO PLANA

Plan Local contra el Cambio Climático



Tolosako Udalak herritarrekin elkarlanean garatu du Aldaketa Klimatikoari aurre egiteko Tokiko Plana. Helburu du Tolosa jasangarriagoa bihurtzea eta tokikotasunetik erantzutea energia trantsizioari eta klima aldaketari. Planak hiru atal ditu: testuinguru orokorra, aldaketa klimatikoak Tolosan izango dituen eragin nagusien azterketa eta eraldaketarako proposatzen diren ekintzak.

Horiek horrela, Tolosako Udala politika publiko berdeak sustatzen ari da azken urteotan. Esaterako, Tolosa Badabil Mugikortasun Jasangarrirako Plana garatu, onartu eta abiarazi da, martxan da zero emisioko autobus elektriko bidezko Hiribus zerbitzua, eguzki plakak jarri dira Ferialekuan eta udal eraikinen auditoria energetikoaren inguruko plana ere egin da neurri zehatzak hartzen jarraitzeko. Ekintza hauen artean kokatzen da, baita

ere, Aldaketa Klimatikoari aurre egiteko Tokiko Plana.

Aldaketa klimatikoaren testuinguruaren azterketa sakona egin ostean, eta honek Tolosan izango dituen eragin nagusiak identifikatu ondoren, eraldaketarako hainbat ekintza proposatzen dira Aldaketa Klimatikoari aurre egiteko Tokiko Planean.

Udalak herritarrekin elkarlanean garatu du Aldaketa Klimatikoari aurre egiteko Tokiko Plana, jasangarritasuna sustatzeko eta klima aldaketari tokikotasunetik erantzuteko.

El Ayuntamiento de Tolosa ha desarrollado en colaboración con la ciudadanía el Plan Local contra el Cambio Climático. Su objetivo es hacer de Tolosa un municipio más sostenible dando pasos hacia la transición energética y haciendo frente al cambio climático desde el ámbito local mediante acciones concretas que se recogen en el plan.



Eraldaketarako lehentasunezko ekintzak eta lan lerroak

Acciones y líneas de trabajo prioritarias para la transformación

1. Energia komunitateak sortzea / *Crear comunidades energéticas*

Eraikin bereko bizilagunen arteko komunitateak eta eraikin ezberdinetako bizilagunen artekoak. Baita Udalaren eta bizilagunen artekoak ere, eraikin publikoetan jarritako eguzki plaken bidez, Ferialekua kasu, edo, lursail bateko eguzki plaken bidez, Ekiola proiektuan bezala.



Aurten, besteak beste, eguzki plaka berriak jarriko dira Uzturpen, LED argiak Txaramarako bidegorrian eta argiztapen sistemak aldatuko dira udal eraikinetan, eraginkortasunaren alde.

2. Energia gastuaren monitorizazioa egitea / *Monitorizar el gasto energético*

Zenbait gunetan: Udal eraikinetan, argiteria publikoan, auzoetan eta eraikinetan sor daitezkeen instalazio komunitetan eta Udalarenak diren etxebizitzetan.

3. Energia berriztagarriak sustatzeko auditoria gauzatzea / *Llevar a cabo la auditoría para fomentar las energías renovables*

4.

Udalaren eraginkortasun energetikoan hobekuntza bultzatzea / *Impulsar la mejora de la eficiencia energética del Ayuntamiento*

Udal eraikin eta instalazioetan karakterizazio azterketak eta auditoria energetikoa egitea eta Udal eraikinetako argiztapen sistemak aldatzen eta eraginkorrago bihurtzen jarraitzea. Eraikuntza berrietan, ingurutzaila termikoak hobetzea, esaterako Kultur Etxea eraberritzeko proiektuan, eta, azkenik, Udal eraikinetako galdarak hobetzea, San Estebango elkartearen adibidez.




5.

Energia kontsumoaren inguruko informazioa gizarteratzea / *Difundir información sobre el consumo de energía*

Tolosako familien artean, merkataritzan eta zerbitzuen sektorean energia kontsumoaren inguruko ezagutza zabaldu nahi dugu, informazio bulego bat irekiz eta formakuntza tailerren bidez, Udalaren politika fiskalen, hobarien eta diru laguntzen berri emateko, besteak beste.

Acciones concretas previstas para este año: nuevas placas solares en Uzturpe, luces LED en el bidegorri a Txarama, integración en el sistema MUGI, puntos de carga para vehículos eléctricos y nueva oficina de información sobre energía.



6.

Zero emisioko garraiobideak sustatzea / *Fomentar de medios de transporte de cero emisiones*

- Martxan da zero emisioko autobus elektriko bidezko Hiribus zerbitzua.
- Garraio publiko ezberdinen arteko intermodalitatea bultzatu nahi da Mugi sistemaren bitartez.
- Bidegorri sarea handitu eta hobetzea aurreikusten da abian dauden hainbat proiektutan, esaterako Paper kalearen eraberritzean, Usabal industrialdean eta Zumarditxikian. Udal kiroldegiaren eta Amarotz auzoaren arteko lotura egiteko ere bidegorria jarriko da, eta

Amarotz eta Txarama arteko bidegorriari argiztapena hobetuko da. Ospitale berriaren eta Amarotz auzoaren artean ere bidegorria jartzea aurreikusten da.

- Oinezkoek lehenetsuna duten eremuak handituko dira, eta bidegurutzeetako semaforoak kenduko dira herriko zenbait puntutan, gune horiek "bizitegi eremu" izendatuz. Zuloaga eta Larra mendiren artean zubia eraikiko da.
- Ibilgailu elektrikoentzako karga puntuak jarriko dira Eroski merkataritza gunearen aparkalekuan eta tren geltokian.
- Iruña etorbidean seinale argidunak jarriko dira eta zebra bideak argiztatuko dira, adibidez Ibarra biribilgunean.
- Autobus geralekuak egokituko dira eta informazioa eguneratuko da.
- Lizitazio berrietan energia jasangarritasunerako irizpideak txertatu eta baloratuko dira.



7.

Lurraldearen eraginkortasuna hobetzea / *Mejorar la eficiencia del territorio*

- Azpiegitura berdeen inbentarioa egitea eta eremu berde eta degradatuak berreskuratzea, Udala Amarotzeko basoan egiten ari den moduan.
- Beotibar pilotalekuaren atzealdeko paretata fatxada berde moduan estaliko da.
- Biodibertsitate Gunea abiarazi da aurten, eta bultzatzen jarraituko du Udalak.

- Uholde arriskua kontuan hartuko da eremuen berrikuntza prozesuetan, Zumarditxikian edo Usabalgo hirugarren faseko proiektuan egin den moduan, guneak babestuz eta ibaira irekiz, espazio horiek herritarrentzat berreskuratzeko seguruak izan daitezkeen.
- Lur publikoa eskuratzeko bideak aztertuko dira, lur zaintzarako hitzarmenen bidez edo erosiz.
- Nekazaritza edo abeltzaintzarako baliagarriak izan daitezkeen eremuak identifikatuko dira eta hitzartutako kudeaketa sistema bat ezarriko da Tolomendiren bidez.



AZKEN BERRIAK

Actualidad

BUELTAN DIRA TOLOSAKO AZOKA BEREZIAK

Tolosa ari da pandemia garaia atzean uzten eta indarberritzen, berezkoa duen dinamismoa, jarduera eta erreferentzialtasuna berreskuratzen, era koordinatuan ekimenak antolatzen. Ildo horretan, azoka bereziek eta kultur jarduerak garrantzi berezia hartzen dute eta eragin positiboa dute hiri-ekonomia osatzen duten sektore guztietan.

Maiatza horren adibide izan da, hainbat ekimen antolatu baitira. Batetik, Tolosa Zuria Loretan izan dugu, Museoen eguna eta Gau Zuria uztartuz, eta hainbat ikuskizun, azoka berezi, kontzertu eta erakusketa izan dira Tolosan. Bestetik, Haragi, Haragiaren eta Txingarraren Nazioarteko III. Topaketa ere izan dugu haragia maite dutenentzat, eta baita Musikherria ere herriko kaleak musikaz alaitzeko.

Udazkenean ere ohiko azokak egingo dira Tolosan, hiri ekonomiaren sustapenerako, askotariko eragileekin elkarlanean: Babarruna, Goxua... Esan daiteke, beraz, Tolosak berreskuratutako duela bere bizitasun bereizgarria.

Han vuelto las ferias especiales de Tolosa. El municipio está recuperando su característico dinamismo y mayo ha sido ejemplo de ello. Se ha celebrado la feria especial Tolosa Zuria Loretan, coincidiendo con el día de los Museos y la Noche Blanca, y también HARACI, la III. edición del Encuentro Internacional de Carne y Brasa, y la iniciativa Musikherria.

NATOLOSA ALDIZKARI BEREZIA ARGITARATU DU BIODIBERTSITATE GUNEAK


Tolosako Udalak hainbat lan lerro ditu martxan ingurumenaren eta garapen jasangarriaren aldeko apustuan, eta tokikotasunetik aldaketa klimatikoari erantzuteko. Horietako bat da Biodibertsitate Gunea. Biodibertsitatea lantzeko elkargune irekia sortu zuen Udalak iaz, biodibertsitatearen kontserbazioan herritarren interesa eta partaidetza sustatzeko eta tolosarrei gai honi buruzko erreferentziako espazio bat eskaintzeko. Orain arte egin diren jarduerak herritarren artean izandako harrera ikusita, Udalak gunearen irudi korporatiboa sortu du egitasmoa

sendotzeko, eta Biodibertsitatearen Nazioarteko Egunaren harira, *NATolosa* izeneko aldizkari ale berezia argitaratu du Biodibertsitate Guneak. Argitalpenak biodibertsitatea du ardatz, eta hainbat artikulu eta elkarrizketa barne hartzen ditu, euskaraz eta gaztelaniaz.

Ante la buena acogida que ha tenido el Aula de Biodiversidad entre la ciudadanía, el Ayuntamiento ha creado una imagen corporativa del espacio para reforzar el proyecto, y el Aula de Biodiversidad ha publicado una revista especial denominada NATolosa con motivo del Día Internacional de la Biodiversidad.



TOLOSAN ETXEBIZITZA AUKERAK AREAGOTZEN, ALOKAIKIRUAN AZPIMARRA JARRITA



Aumentar las oportunidades de vivienda en Tolosa, poniendo énfasis en el alquiler

El Ayuntamiento está desarrollando varias líneas de trabajo en respuesta a la demanda de vivienda existente en Tolosa, con el objetivo de garantizar el derecho a la vivienda a las y los tolosarras. Para ello, se está trabajando principalmente en la puesta en alquiler de las viviendas vacías y la promoción de nuevas viviendas, para aumentar el parque de viviendas protegidas en alquiler.

Tolosarren etxebizitza beharrei eta eskariei erantzutea lehentasunezkoa da, eta horregatik, lan lerro batzuk abiaraziak ditu Udalak herrian dagoen etxebizitza eskariari erantzuteko, tolosarren etxebizitza eskubidea bermatu eta tolosarrei herrian bizitzeko aukera eskaintzeko.

Bide horretan, alokairuan jarri da azpimarra eta etxebizitza hutsak merkaturatzeko lan lerro batzuk martxan daude:

- **Amarotzen:** Alokairuko 111 etxebizitza babestu eraikiko dira lehen fasean.
- **San Esteban auzoan:** Diagnostikoa egin eta martxan jarriko da HAPOaren aldaketa.
- **Lurramendin:** 141 etxebizitza eraikiko dira, 23 babestu, 40 tasatu eta 78 libre. Horrez gain, **alokairuko 15 etxebizitza babestu berri eraikiko** ditu Udalak.
- **San Kosme eta San Damian eremuan:** 20 etxebizitza tasatu eta 30 libre.
- **San Frantziskon:** 23 etxebizitza libre.
- **Alde Zaharrean:** zenbait promozioaren sustapena. Guztira 46 etxebizitza.
- **Zubizarretan:** 16 etxebizitza libre eta 32 babestu.
- **Miserikordia Zaharreko eremuan:** 70 etxebizitza berri eraikitzea aurreikusten da, erdiak babestuak.

1. **Alokabiderekin lankidetzak.** Herritarrei erraztasunak emateko etxebizitza eskabideak kudeatu eta bideratzeko orduan.
2. **Etxebizitza hutsak birgaitzeko dirulaguntzak.**
3. **Etxebizitza hutsen jabeekin lanketa berezia.**
4. **Alokairuaren ordainketa errazteko dirulaguntzaren egokitzapena.** Helburu du laguntza herritar gehiagorengana zabaltzea.

Etxebizitza babestuen parkea handitzeko hirigintza garapena

Etxebizitza babestuen parkea handitzeko, etxebizitza berrien sustapena, alokairuaren aldeko apustuan.



AZOKA INDARTZEKO ESTRATEGIAREN BAITAN, AZOKAKO POSTUEN BERRANTOLAKETA

Covid-aren aurkako neurriak malgutzearekin batera, Tolosako larunbateroko azoka ohiko eremuetara itzuli da. Trianguloko postuak Zerkausira lekualdatu ziren otsailean, eta San Frantzisko pasealekukoak itzuli dira Euskal Herria plazara. Pandemia garaia baliatu du Udalak, Azoka Lagunak proiektua abiarazteaz gain, azoka garai berrietara egokitzeko urratsak egiteko eta larunbateroko azoken eremuen azterketa eta berrantolaketa egiteko, azokak indartzeko estrategia zabal baten baitan.

El Ayuntamiento ha reorganizado los puestos del mercado del sábado en beneficio de la accesibilidad y el dinamismo



Berrantolaketarekin, postuak modu ordenatuan kokatu dira, eta irisgarritasuna hobetu eta dinamismoa eman zaie azoka guneei. Halaber, eremu guztiei itxura bateratua emateko, mahai zapiak eta beste elementu bateratu batzuk jarriko dira hiru guneeetan.

TOLOSALDEPEDIA LIBURUA, KALEAN

Tolosaldeko ezagutza Wikipedian jartzeko eta herritarren arteko harremanak sustatzeko abiarazi zen proiektu herritarra, irekia eta kolaboratiboa da Tolosaldepedia. 2021etik hona, Tolosaldearen inguruan sortu diren 114 artikulurekin osatu da Tolosaldepedia liburua, ikuspegi feminista batetik Jabetze Eskolako emakumeen ekarpenarekin, baita gazteen ikuspegia txertatuta ere, Txiki-pedia osatu duten haurrei esker, eta gizarteko alor eta sektore ezberdinen begiradatik, hainbat herritarren partehartzearekin. Eskuragarri dago Tolosako Udal liburutegian mailegu baten truke.



TOLOSA GARBI MANTENTZEKO LANAK

Herria txukun eta garbi mantentzeko lanean jarraitzen du Tolosako Udalak. Herriko estolderia sarea garbitu du batetik, eta, bestetik, Oria ibaia garbitzeko lanak egin ditu herriko hainbat eragilerekin elkarlanean; horien artean daude Zehar-eko errefuxiatuak, Tolosako ikasleak eta Zumardia elkarteak. Alde Zaharreko 124 estolda zulo garbitu ditu Udalak, guztira 1.445 metro tubo, eta datozen hilabeteetan garbituko dira herriko gainerrako estolda zuloak. Erreka garbiketean, aldiz, 20m³ hondakin baino gehiago bildu ditu Udalak zenbait eragilerekin elkarlanean, inoizko kopururik handiena, ibaiaren emari baxuak ibaiaren hondoan zeuden hainbat hondakin biltzeko aukera eman duelako.



Se han limpiado 124 arquetas de Tolosa y se han recogido más de 20m³ de residuos en la limpieza del río Oria.

TOLOSA ERABERRITZEKO HIRIGINTZA LANAK

Paper kalea

Besteak beste, erdibitzailea kendu da eta espaloiak zabaldu eta oinezkoentzako pasabide berriak sortu dira eremua irisgarriagoa eta seguruagoa egiteko.



Santa Lutziako aparkalekua

Herritarren beharrei eta eskaerei erantzunez, eremu horretako aparkaleku kopurua handitu egin da, eta 28 plaza berri sortu dira.



En marcha varias obras en diferentes puntos del municipio para hacer de Tolosa una municipio más amable, accesible y seguro y crear nuevas plazas de aparcamiento.



Amarotzeko Auzo-Etxe albono estalkia

Aurrera doaz Amarotzeko Auzo-Etxe alboan estalkia eta naturan integratutako jolas gune berria eraikitzeko lanak.



Izaskun auzoa

Igeralde kalean eskailerak eta arrapala egin dira, eta Igeralde eta Bizkaia kaleko bidegurutzea ere eraberritu da, espaloia eta errepidea kota berdinean jarrita.

Lizardi plazako jolas eremua

Haurren Hiria proiektuaren baitan haurrek egindako proposamenari erantzunez, Tolosako Udalak sarea jarri du Lizardi plazan dagoen jolas eremuaren inguruan, erabiltzen dituzten baloiak ibaira erori ez daitezten.



San Frantzisko pasealekuko biribilgunea

Saneamendu lanak egin dira eta biribilgunea eraiki da San Frantzisko eta Pedro Tolosa arteko bidegurutzean.

TRIBUNA

Alderdien iritzia



Kalitatezko arreta eta zerbitzuak

Administrazioaren bokazioa da herritarrei zerbitzua eskaintzea eta gure helburu nagusia, tolosarrei, zerbitzu on bat, kalitatezkoa, bermatzea.

Egungo errealitate eta beharrei erantzun-go dien administrazio modernoa, irekia eta gertuko nahi dugu. Entzun eta erantzuten duena, herritarrei kalitatezko zerbitzu eta arreta bermatzeko.

Zeharo aldatu dira harremanak izateko moduak. Digitalizazioa eta zerbitzu telematikoen ezarpenaren urrats garrantzitsuak egin ditugu azken urteetan. Herritarrei erraztasunak emateko xedez, Udalak ezinbestean egokitu behar baitu garai berrietara, baina aurrez aurrekoarreta, pertsonalizatua, gertuko ezinbestekoak dira. Horiek horrela, gertutasuna berreskuratu nahi dugu, herritarrengandik gertu egon. Pandemia oste honetan, zuzeneko eta gertuko arretari berebiziko garrantzia emango diogu eta Herritarren Arreta Zerbitzua sendotzen jarraitzeko konpromiso osoa dugu.

“Ofrecer una atención y unos servicios de calidad a la ciudadanía. Esa es la vocación de la administración y nuestro principal objetivo. Las nuevas tecnologías nos han permitido implantar servicios telemáticos, pero seguimos apostando y defendiendo la atención presencial, personalizada y cercana. Por ello, seguiremos fortaleciendo el Servicio de Atención Ciudadana, UDATE”.



Klima aldaketaren aurkako borroka lehen sektore lehentasunezko erronka izan beharko luke guztiontzat.

Lehen sektore jasangarria indartu behar dugu, energia berriztagarriak sustatu energia komunitateak sortzen lagunduz eta autosorkuntza zein mikrosareen proiektuen garapena bultzatuz, hondakin gutxiago sortu, garraio publikoa indartu, oinez zein bizikletaz mugitzea bultzatu eta erraztu, etorriko diren aldaketei aurre egiteko bertako basoa hedatu... Tolosa Klima 2050 planak neurri horiek guztiak eta gehiago jasotzen ditu, baina lehenbailehen jarri behar dira martxan.

Euskara planari dagokionez, xede nagusia euskararen erabilera eta eskal kultura sendotu eta zabaltzea da. Aurrean ditugun bi erronka nagusi ezagutza unibertsalizatzea eta erabilera hauspotzea dira. Zeharkatzen gaituen gaia da hizkuntza, euskara, eta garrantzitsua da zeharkakotasunez lantzea; feminismoa bezalaxe.

Jai Berdinzaleagoen Aldeko plana aurkeztuko da udaberriaren eta helburua ikerketetako emaitzak iraultzea da. Jaiak eremu seguru bezain askea izatea da jomuga, eta zaurgarrienak direnek aukera berdintasunean bizi eta gozatzeko.

Planak egitea -asmoa adieraztea eta horretarako gidaorria sortzea ezinbestekoa da. Baina benetan garrantzia eta balioa duena, plan horiek gauzatea da. Paper errean gera ez daitezela, beste hainbatetan bezala...



Klima-aldaketa da mende honetako ingurumen erronka nagusia. Arazo horri erantzuteko denon kolaborazioa beharrezkoa da. Izan ere, esparru askotan landu behar den gaia da. Lehenik eta behin, hiri hondakinak murriztu behar ditugu eta hiru R ospetsuak (reciclar, reutilizar eta reducir) aplikatu.

Gainera, Tolosan, hiri-espazioak lehenetsia eman behar dio oinezkoari edo txirindulariari autoaren aurrean. Horrek berekin dakartza hauek: oinezkoari espazio gehiago ematea, txirindulariek hiriko asfalto okupatzea eta espalioetan egonda oinezkoentzat arriskutsuak diren bidegorriak kentzea.

Asimismo, nosotros y nosotras creemos necesaria la finalización de la variante de Ibarra de tal forma que se suprima el intenso tráfico en el centro de Tolosa, la construcción de parkings para automóviles en la periferia de Tolosa y la apuesta por un buen transporte público.

Por último, la experiencia en San Francisco o Arramele nos enseña que es posible la supresión de semáforos. Los mismos generan retenciones y lugares con ruido y contaminación. La supresión de semáforos en San Francisco, Avenida de Navarra y Cuesta del Conde y rotonda de Ibarra no puede esperar más.

AGENDA

Agenda osoa ikusgai: agenda.tolosa.eus

EKAINAK 11

Dantza tailerreko emanaldia
12:00etan eta 18:00etan, Leidorren

EKAINAK 17

Antzerki tailerreko emanaldia
20:30ean, Leidorren

EKAINAK 18-26

Huntza, Nikotina, Joseba Tapia, Skakeitan, Dupla, Bulego, Kerobia eta gehiago!
Egitarau osoa agenda.tolosa.eus-en

Sanjoanak Tolosa 2022
ekainak 23-26

EKA - UZI 30-03

TOLOSAND BLUES 2022

Kontsultatu Aleka-ren edukia zeinu hizkuntzan:
Consulta el contenido de Aleka en lenguaje de signos:

HEMEN!

DIRULAGUNTZAK

SUBVENCIONES

19 dirulaguntza lerro argitaratu ditu Tolosako Udalak, udalerriko herritarrei, taldeei eta eragileei haien jardueretan laguntzeko helburuarekin. Hainbat alorretakoak dira dirulaguntzak:

- Kultura
- Berdintasuna
- Euskara
- Kirolak
- Gizarte Zerbitzuak
- Enpresen lehiakortasuna
- Gazteria

DEIALDI BATERATUA!
¡CONVOCATORIA
CONJUNTA!

INFORMAZIO GEHIAGO
MÁS INFORMACIÓN:



Plaza Zaharra 6A
20400 Tolosa, Gipuzkoa
Tel.: 943 654 466
gobernantza@tolosa.eus

Jendaurreko arreta:
Astelehenetik
ostiralera:
07:15 - 14:15

